

Goierri tarra

299. zenbakia

2006ko apirilak 21

Aralarreko hainbat malkarretan

BASOA LANDANTZEN

Dolarea
j at et x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Abo finen
gozámenerako...*



rakone



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



RPS.:32/04

GOIERRITARRA aldizkariak hasi du urteroko kobraketa kanpaina. Aurten zenbait berrikuntzarekin dator gainera.

Borondatezkoa izan da orain arte, eta hemendik aurrera ere bai, GOIERRITARRA aldizkaria ordaintzea. Asko izan dira gainera bide hau hartu eta GOIERRITARRA aldizkaria hamabostero kaleratzen lagundu dutenak. Beraz, aurten kobraketa kanpainarekin, ordaintzaile-

ei bere abantaila izango dute, orain arte bezala, aldizkaria etxeraino eramanez.

Ordaintzen ez dutenek ere jaso ahal izango dute aldizkaria, orain arte bezala. Baina etxean jaso ordez, zehaztutako leku publikoetan utziko zaie.

Neurri honekin, ordaintzaile eta ez ordaintzaile arteko bereizketa egiteaz gain, ordaintzen ez dutenei, zer pentsatua ematea ere bada, horrelako produktu bat egiteak dituen gastuez jabetu daitezten. Gaur egun dohainik zer lor daiteke?

Tarifak

Hona hemen eskualdeko informazioa euskaraz etxean jasotzeko aukera:

GOIERRITARRA bakarrik:
24 euro.

Hitza bakarrik:
60 euro.

Hitza + GOIERRITARRA:
65 euro.

Egunean, 023 zentimogatik, Hitza eta Goierriarra etxean jaso ditzakezu. Harremanetarako deitu 943 304 643 telefono zenbakira.

Goierriarra HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

**Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN**

Posta elektronikoa:

goierriarra@topagunea.com

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 643

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierriarra diruz laguntzen duten erakundeak:

*Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak*





autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

**Zer eduki beharko luke
nire enpresaren Webguneak?**

**Goierri
maiatzak 4
ORDIZIA**

Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia:
18:00-20:00

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren **Teknologia Berriek** Enpresa Txikien kudeaketan.

Nire enpresak **Interneten egon behar** du, baina, nola? **Webgune eraginkorra eta zuzena** izateko kontuan hartu behar duan guztia. Jarraitu beharreko oinarritzko **gomendioak**.
Domeinua. Webgunearen diseinua.

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Sustatzaileak:











Inazio Usarralde

**Gurdiari denok
norabide berean
tira egiteko
ordua iritsi da,
orain zabaldu
zaigun aukera,
konponbiderako
benetako
aukera izatea
nabi badugu
behinik behin.**

Autodeterminatzen

Ezin da ukatu lehengo martxoaren 22an ETAk su-eten iraunkorra iragarri zuenetik beste aurpegiera batzuk ikusten direla inguruan eta kalean. Ezin da ukatu asko eta asko, goikoak edo behekoak, ezkerrekoak nahiz eskuinekoak, poztu egin garela albistea jakitean, bista-koa denez, oraingoan poz hori neurtua-koa baldin bada ere. Izan da tartean bekozkia okertu zaionik eta urduri samar jarri denik ere. Baina, hasterako jakin badakigu eskuartearen dugun prozesura batzuk erakartzea ikaragarri kostako dela. Horregatik ez diogu aurrera begiratzeari ukorik egingo, ez horratio!

Argi dago hemendik aurrera eragile ezberdinek eta herritar guztiok aurrez-aurre dugun erronka ez dela ez ahuntzaren gauerdiko eztula, ez eta katarroa ere. Gure *ahuntzak* gripe luzeegia izan du eta denon ahalegina beharko du indartzeko. Horren aurrean inork ezingo dugu gure erantzukizuna saihestu, ezingo dugunez. Gurdiari denok norabide berean tira egiteko ordua iritsi da, orain zabaldu zaigun aukera, konponbiderako benetako aukera izatea nahi badugu behinik behin.

ETAk su-eten iraunkor edo *permanentea* iragarri zuenetik gaur arte, *permanente* horretaz entzun dudana interpretazio ederrena eta politena ez diot inongo politikariri entzun, Iñaki Murua bertsolariari baizik. Hala zioen zorioneko egun hartan bertan: “euskaraz *permanentea* (ile-orrakerari dagokionez) kizkurra, kiribilkorra, sigi-sagaz betea dela” eta hemendik aurrerako bidea halakoa izango dela zioen eta bat nator guztiz berarekin. Ez da samurra izango baina mereziko duelakoan nago.

Bestetik, ordezkari politiko askoren ahotik entzuten ari gara euskal auziaren gako nagusia autodeterminazio eskubidea edo, beste era batera esanda, euskal herritarrok geure etorkizuna erabaki ahal izateko eskubidea aitortzean datzala. Horrenbestez, baldin eta hiztegiko definizioari (Harluxet entziklopedia) kasu egiten badiogu berehala ohartzen gara bi adiera nagusi dituela autodeterminazio hitzak: 1 herri bateko biztanleek bere estatutu poli-

tikoa libreki hautatzea eta 2 nor bere buruari dagozkion erabakiak hartzea.

Horra, bada, gai honetan nik ikusten ditudan bi mailak: lehenengoa, behingoz herri honi zer izan nahi duen galdetzea alegia, eta hori alderdi politikoek landu beharko dute nagusiki; eta beste maila nik orain zehaztu nahi dudana hiztegiko bigarren adierak ematen diguna da: bakoitzak geure buruari dagozkion erabakiak hartzen hastea alegia.

Hara, beraz, autodeterminazioa praktikan jartzen hasteko proportzioa. Gainera horretan, egia esan, ez dago alderdi politikoek zer egiten duten zain egon beharrik: gure esku dago. Eta hobe gaur autodeterminatzen hastea bihar baino. Horra etxerako moduko autodeterminazio neurri batzuk:

- ✓ Euskal herritar gisa agertzea edonoren aurrean, Bizkaiko ertzetik Zuberoa barreraino Euskal Herria dela jakinda. Eta ez ibili, Hendaiara dentistarengana joatean, “*Frantziara noa*” esaka.
- ✓ Euskaldun *euskaradun* agertzea edonoren aurrean lehen unetik. Horretarako, iturri ezberdinak entzutea eta irakurtzea komeni bada ere, euskarazko komunikabideak kontsumitzea eta erostea eskelak eskela. Horrekin batera, euskarazko literatura, antzerkia, dantza, zinema, musika... produktu eta ikuskizunetan bakoitzaren aisialdirako diru gehiena gastatzea eta, euskarazkoa ez den produktua sen kritikoagoz kontsumitzea.
- ✓ Euskara ikasi eta trebatzeko premia duten euskaldun berriei beraien neurrigabeko ahalegina eskertu eta euskaldun bihurtze bidean laguntzeko *mintzalguna* izatea.
- ✓ Eguneroko jaki eta edarietan bertako baserritarren eta arrantzaleen produktuak erosi eta kontsumitzea.

Dударик gabe, oraindik erabaki txiki gehiago har ditzakegu geure bizimodu arruntean. Horiek denak autodeterminazio frogak dira. Has gaitezen bada... autodeterminatzen. Has gaitezen eraikitzen gaurtik biharko nahi dugun Euskal Herria.



kutxa

gizarte ekintza

Energia nuklearraren aurkako europar eskakizuna

Zergatik sinadura bilketa?

Chernobylgo ezbeharraren urteurrena zela eta (2004/10), Europa guztiko elkarteek sinadura bilketa bat antolatu zuten "milioi bat europarrek energia nuklearraren erretiratzea eskatzen dute" lemapean.

Zer neurri hartu nahi da?

Europa guztian zehar milioi bat sinadura jaso behar dira politikoei ondorengo neurriak hartzea eskatzeko:

- Europar zentral nuklearrak eraikitzea galarazi edo eragozte.
- Europar Batasuneko herrialde guztiek beraien lurretan dauden zentral nuklearrak ixteko planak aurkeztea - desagertze hau ahalik eta azkarren emateko.
- Energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarriak bermatzen dituen inbertsio programa bat aurkeztea.
- Euratomekin dituzten kontratu zahar eta ez lehiakorrek desagertu araztea, egungo kontratu hauen bidez diru publikoa industria atomikoa bultzatzeko erabiltzen baita.



Zer lortu nahi da neurri hauekin?

Neurri hauen ezartzeak industria atomikoaren kontrako borroka bideratzen du, aldaketa klimatikoa gelditzearekin batera. Eskakizun hau sinatzen duten pertsonak Euratomaren berraztertze konferentzian estatu eta gobernu buruen parte-hartzea exijitzen dute, honen bitartez Europar Batasunak energia atomikoa sustatzea ekiditeko. Eskakizun honek ere Europar Batasuneko Kontseiluak Euratom kontratuan oinarritzen diren beste antzeko ekimenik ez bermatzea du helburutzat, hala nola, dekretuak, kontseilu erabakiak, zuzentzai-leak, eta abar; baita Euratom kredituei buruzko

90/212/Euratom eta 94/179/Euratom kontseilu erabakiak baztertea.

Non sinatu dezaket?

Sinadurak 2004ko apiriletik 2006ko urria bitartean bilduko dira. Sinadura ondorengo web orrian egin daiteke: http://www.million-against-nuclear.net/downloads/petition/million_petition_es_web.pdf

Mezu hau entzutea lortu nahi da, beraz sinatu eta eskatu zuen lagunei ere sinadura bilketa honetan parte hartzeko. Ekintza honen emaitzak hedabideetan argitaratuak izango dira. Baina informazio gehiago nahi izanez gero, helbide elektroniko honetara zuzendu zaitezke: post@atomstopp.at

Zergatik milioi bat sinadura?

Europar konstituzioko I-47 artikulua araber "Europar Batasuneko herrialde desberdinetako milioi bat biztanlek exijitu dezakete batzordeak europar konstituzioa aldatzeko proposamen eraginkorrek egitea". Prozedura eta biztanleen ekimenen baldintzak Europar Legean ezarriak izango dira. Oraindik Europar Konstituzioa ez da indarrean jarri, baina milioi bat sinadura pisuzko arrazoi dela konbentzitura gaude.

Informazio iturria:

<http://www.atomstopp.at/1million/petition.asp>

<http://www.million-against-nuclear.net/index-2.htm>

JAKIN BEHARREKOAK

AHT-ren AURKAKO KANPAINA

AHT gelditzeko mila arrazoi daude: eman zeurea. Gure herria, gure lurra eta gure bizimodua suntsituko duen proiektua eraiki nahi dute. Abiadura Handiko Trena Euskal Herrian egitasmorik kritikatu eta gaitzetsienetakoa da: egitasmoak ingurumenari, nekazaritzari, ekonomiari, lurraldearen orekari eta gizarte osoari eragingo lizkiekeen kalteen larritasunari zor zaio oposizio zabal hori. Era berean, inposatu nahi diguten eredu ekonomiko eta sozialak baliabide publikoen xahuketa, gastu sozialen murrizketa, dependentsia eta prekarietatea areagotzea dakar berekin. Gainera, agintariak inposizioarekin eta erabateko informazio-ezarekin erantzun dieten AHT gelditzeko herritarren eskaera guztiei. Une honetan kikildu, amore eman eta geldirik egotea barkaezina izango zen. Horregatik, **AHT gelditu!** Elkarlanak kanpaina berri hau martxan jarri dugu: *"AHT gelditzeko mila arrazoi daude: eman zeurea!"* Bakoitzaren arrazoiari bidea emanez, bakoitzaren konpromisoa bilduz, Abiadura Handiko Trenaren inguruan gizartean dagoen desadostasun zabala argi eta garbi utzi nahi dugu. Euskal Herrian proiektu suntsitzaile honi aurre egiteko energia alternatibo nahikorik badaudela frogatuko dugu.

"Europa guztian zehar milioi bat sinadura jaso behar dira politikoei neurriak hartzea eskatzeko"

SUKALDEAN

Pistoz betetako tomateak, gazta eta foiearekin



Nerea Gomez
Nere Etxea jatetxea
Lazkao

Osagaiak

- Tomatea
- Berenjena
- Kalabazina
- Tipula
- Ahuntz gazta
- Foie
- Ogi birrindua

Tomateari tapa kenduko diogu eta barrutik goilara txiki batez hustu. Kazola batean dadotxoetan ebakitako berenjena, kalabazina eta tipula gorritzen jartzen dira tomateari atera diogun mamiarekin.

Barazkiak gorritu direnean tomateak beteko ditugu. Ondoren, labean sartu behar dira, 150 gradutan

15-20 minutuz, tomatea egin arte, hau da, gorrituta eta bigunduta egon arte.

Zerbitzatzeko garaian ogi birrindua gainetik bota, eta foie eta auntz gazta xafila bana jarriko diogu gainean tomate bakoitzari. Amaitzeko eta 3-5 minutuz gratinatuko dugu.

Foierik ezean pateaa ere erabili liteke.

Nondik nora

Etxe bat erosten dugunean, edo etxe bat eraberritzera-koan, sortzen zaigun lehen zalantza nondik hasi erabakitzea izaten da. Horixe da lehenengo koska eta gaintitzen zailena. Lehendabizi etxebizitzaren ahuleziak eta alde nabarmenak aztertuko ditugu: argitasuna non, sabaiaren altuera, orientazioa, m2ak etab. Honen arabera alderik onenak azpimarratuko ditugu eta alderik kaskarrenak aldatzen edo behintzat estaltzen saiatuko gara.

Esate baterako, etxe batek argitasun falta badu, erabiliko ditugun materialak argitasun eza gaintitzen la-

gunduko digute. Ahal den neurrian etxearen banaketan beirazko egituraren bat sartu dezakegu, gaineztaduraz argiak erabili, ate laka-tuak... Honekin guztiarekin batera argitasun azterketa bat egitea beharrezkoa da.

Bigarren kezka edo zalantza geure bizimoduak eragiten digu: zenbat pertsona bizi behar garen, etxean haurrik ba ote dugun, bizitza aldakorra dugun, zenbat denbora egiten dugun etxean... Guzti hori kontutan hartuz m2ak banatzen hasiko gara eta bakoitzaren espazioa isladatzen saiatuko gara. Halaber, bizi-modu mota bakoitzerako

irizpide bat izango dugu. Hau da, etxe bat erabat funtzionala izan daiteke edo erabat pertsonalizatua, edo eta bi hauen konbinazio orekatua.

Barneko banaketaren atala gaintitzen dugunean, etxea barrutik jazen hasiko gara eta berriro ere erantzun baten bila jardungo gara. Etxeak estilo jakin bat izateaz gainera (modernoa, garaikidea, eklektikoa, klasikoa, rustikoa) ezinbestekoa da estiloak oreka gordetzea: koloreetan, neurrietan, altzarietan...

Honek ez du esan nahi etxe bat monotonia edo simetrikoa izan behar denik

AHOLKUA



Nekane Eskisabel
Atari barne diseinua

baizik eta konbinaketak eta nahita egindako kontrasteak ausartak eta neurtuak izan behar direla.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

VOLVO






ANZIZAR, S. A.




**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

**Irakaskuntzaertain
eta lanbiderakoak**
**Enseñanzas medias
y profesionales**



Fotodepilazioa



Lor ezazu zure
depilazioarentzat
irtenbide azkar,
progresibo eta ziurra
Probatu
laserraren
gozamina

Eta goza ezazu zure
larruazalaren
leuntasunaz



Fotogaztetea



**JOSUNE
ESTETIKA
ZENTROA**

J. M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA

☎ 943 882 888 centroiosune@yahoo.es

Emaztegaien makilajea



Larruazal azpiko terapia sistematizatu

Zelulitiaren aurkako Berritzailea “Laranja azala”

Ongizate orokorra
 Diagnostiko pertsonalizatua
 Kontsulta eta proba dohainik

Segura Irratia, 50 urte uhinetan

*On Zesareo Elgarrestak
sortu zuen 1956ko
apirilaren 2an*

Hemen Segura Irratia zuekin' esaldia, lehenengo aldiz, 1956ko apirilaren 2an esan zuen On Zesareo Elgarresta apaizak. Erlijio gaiak zabaltzearekin batera, euskara susta-

tzeko helburuz sortu zuen irratia apai bergararrak. Euskal irratietan aitzindaria da Segura Irratia. Iraganeko eta gaur egungo kontuak errepasatu ditugu ondorengo lerrootan.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Segurako apaiza zen On Zesareo Elgarresta Larreategi bergararrak sortu zuen Segura Irratia, 1956ko apirilaren 2an, Accion Catolicaren egoitzan. Gaur egun da goen lekuan berean. Egoitza berean, zinea ere sortu zuen On Zesareok. Gaur egun, irratia sortu zen garaitik, esatari bakarra bizi da: Luzia Imaz. "90 bat urte edukiko ditu eta Donostian bizi da", zehaztu du Mari Karmen Elortza, Segura Irratiko arduradunak.

"Errosarioa eta elizkizunak baserrietara iristeko sortu zuen irratia" On Zesareok. 1956ko apirilaren 2an zabaldu zen lehenengo aldiz Segura Irratiaren ahotsa. Ondoko orrian duzue lehenengo eguneko programazio osoa, ondo zehaztuta.

1980ko irailaren 20ko Goiz Argi aldizkariaren 496. aleak zehazten duenez, "euskal-irratia baino leenago sortu ere. Segura'ko Lardizabal kalean, mailla alda-patsu batzutan igo ta antxe gela estu batzuk: mai ta eserleku, irratsaio ta emankizunak bidaltzekoan bearrezko diran tresnak, diskoak, e.a. (...) Bete-betean erlijio-giroko irratia zan asieratik; ala jarraitu du. Sorreran, egia esan, oso soilla, tresneria ta jendetza aundirik batere gabekoa. Apal eta xume zanez, parregarri iruditut zitzaien bati baino geiagori. Baiña erriak maite zuan, batez ere erri euskaldun xeeak asmo maite zuan".

Erljio gaiak uhinetan zabaltzeaz gain, beste helburu bat ere bazuen Segura Irratiak: euskara sustatzea. "Euskaraz hasi zen lehenen-gotariko irratia da. Errezelo-

Un medio extraordinario de apostolado

EN SEGURA (GUIPUZCOA) TIENEN SU EMISORA DE RADIO PROPIA LAS RAMAS FEMENINAS DE ACCION CATOLICA ESPAÑOLA

He aquí escuetamente reseñado por sus organizadoras uno de los medios del apostolado moderno de mayor radio de acción, una conquista admirable que un grupo decidido empezó a título de prueba hace unos meses y que va obteniendo un éxito extraordinario: una emisora de radio.

Cuándo nació: el día 2 de abril de 1956 dió comienzo con el siguiente programa:

1.º Anuncio de la emisora: Aquí, el equipo de altavoces y radio de Acción Católica de Segura, en pruebas para retransmitir los actos que tendrán lugar con motivo de la venida de Nuestra Señora de Aránzazu, Patrona de Guipúzcoa. Antes del anuncio de la emisora se radiaba como lo hacemos en la actualidad, el himno de la Juventud de la Acción Católica.

2.º Misdías vascas.

3.º Noticiario de la Virgen de Aránzazu (se leía su historia y prodigio).

4.º Rezo del santo rosario, poniendo las intenciones: Lunes, por las almas del purgatorio; martes, por todos los enfermos; miércoles, para que reine el Sagrado Corazón en todas las almas; jueves, por el Papa, los Obispos y sacerdotes; viernes, el rosario nacional; sábado, rosario mariano. Termina el rosario con la salve cantada o alguna canción religiosa.

5.º Breve noticiario católico-comarcal y parroquial.

6.º Rogamos a todos los señores radioescuchas nos comuniquen sus impresiones acerca de la audición, advirtiéndoles que será para nosotros el control de más estima el más lejano.

7.º Lectura de las cartas recibidas.

8.º Música de baile vasco "Ariñ Ariñ", etc., etc.

9.º Noticiario deportivo de la pelota a mano y ciclismo y algo de fútbol.

10. Fin de la emisión, "Agor Jaunak". Hora, ocho de la noche, y cierre, nueve de la noche.

PARA QUE FIN SE INSTALO LA EMISORA

Fin principal, la propaganda del rezo del santo rosario, puesto que nuestros campesinos la iban olvidando. Nuestro Centro, sito en zona rural, no podía llegar a la juventud. Diecisiete años de lucha para la formación de la juventud y conservación de las costumbres, sin conseguirlo. Habiendo utilizado por ello Escuela de Preparación Profesional, etc., etc. Todos los medios imaginables. Los dos fines: rezo del santo rosario, vida interior y formación religiosa. Fin se-

**PROPAGA
IMPULSO**

cundario: patriótico. Puesto que en esa hora en esta comarca no se oía una sola emisora española.

RESULTADOS DE LOS SIETE MESES

Hemos adquirido un volumen, nunca soñado por el más optimista de los hombres. Tenemos una correspondencia con los pueblos de la comarca increíble. Según cálculos parcos, se habrán rezado, mediante esta emisora, unos cuatro millones de rosarios. Hay casos de hombres que nos confiesan públicamente que hace veinte años que no rezaban el rosario y hoy rezan diariamente. Los obreros y caseros son los que más rezan. Sabemos de una persona que hace dieciocho años no pisaba la iglesia y hoy reza diariamente el rosario y se confiesa y cumple como buen cristiano, dando buen ejemplo.

COLABORACION

Hemos tenido muchísima de los padres franciscanos de Aránzazu, que han utilizado constantemente esta emisora. Los jesuitas, desde el primer día, nos envían guiones radiofónicos del "Mensajero de Jesús". De Madrid hemos recibido formidable ayuda de O. F. I. M. Los dominicos nos han enviado propaganda del rosario.

Los pueblos comarcales nos han correspondido muy bien.

EL ALCANCE DE LA EMISORA

Total del alcance, cincuenta ki-

CARACTERISTICAS DE LA EMISORA DE ACCION CATOLICA DE SEGURA

Emisor radiofónico (Radiodifusión). Nombre oficial: Emisora del Centro de Acción Católica de Segura (Guipúzcoa), propiedad de las Ramas Femeninas de Acción Católica Española. Persona responsable: Don Cesáreo Elgarresta Larreategui, consiliario de dicho Centro. Potencia de la emisora: Potencia de salida R. F., 25 w.; modulada en placa a 100 por 100. Longitud de onda, 200 metros; frecuencia, 1.500 kcs/s.; oscilador V. F. O. (primera etapa); amplificador-separador (segunda etapa). Amplificador de potencia C. (final).

Modulador: 25 w. audiodifusión, salida push-pull, acoplado a transformador a placa del amplificador de potencia radiofrecuencia. Clase C.

Entradas audio: 1, micrófono alta impedencia con control independiente de volumen. 2, Pickup alta impedencia, también con control de volumen independiente. Antena, tipo L (Marconi), con tierra un cuarto.

Magnetofón, marca Philips. Velocidad, tres y medio.

Y ahora, después de estos datos que nos hablan de un esfuerzo constante para conseguir una acción eficaz, no nos queda sino el esperar que este ejemplo que nos da Segura, un pueblecito vasco con



lómetros. Del centro, a 25 de radio. La emisora es de alta fidelidad, esperando que muy pronto sea para oír música la mejor emisora, puesto que su autor es de lo mejor que tenemos en España.

COSTE DE LA EMISORA

Veinte mil pesetas.

pocos medios pero con un entusiasmo inigualable, cunda y se extiende por toda España. A nuevos tiempos, nuevos métodos de apostolado.

Felicidades a la emisora del Centro de Acción Católica de Segura (Guipúzcoa).

Madrilgo Accion Catolica-ko gazteen aldizkarian 1956 urtean kaleratutako artikulua

ak izan dira baina beti eliza-
ren babesean egon da eta
ez da arazorik egon. Euska-
raz eta gaztelaraz egin izan
da beti Segura Irratian. Hori
bai, elizkizunak beti euska-
raz izaten ziren”.

Goiz Argi aldizkariko ar-
tikuluak dionez, erlijio giro-
az eta euskal giroaz gain,
“euskal-doiñuen bidez za-
baldu izan duen alaitasun-
giroa” nabarmentzekoa zen.

“Jende askok esaten
duenez, etxe askotan or-
duan erosi zen lehenengo
irratia”, zehaztu du Mari
Karmenek. “Bertako jende-
ak egiten zuen irratia eta
baten ahotsa entzun ziteke-
ela eta bestearena entzun
zitekeela, berehala zabaldu
zen”, gaineratu du Nikolas
Iparragirre Segura Irratiko
arduradunak.

Gehienez On Zesareo-
ren ahotsa entzun zitekeen
irratian baina ondoan izaten
zuten Milagros Elortza, Lu-
zia Imaz, Josu Etxeberria,
Gregorio Etxeberria, Kar-
mentxu Etxeberria... “Eliza-
ren munduko jendea zen
hori, bere ingurukoa”.

Lehenengo antena

Aspillan jarri zuten lehenen-
go antena. 1975ean, Aizele-
kura eraman zuten zabal-
kunde handiagoa izan ze-
zan. “Japonian ere Segura
irratia entzutea nahi zuen
On Zesareok. Hori dela eta,
Aloña mendin antena jarri
zuen gero. Candanchun, Lo-
groñon, Landatan... entzu-
ten zen. Bitxikeria bezala



Font Andreu gotzaina etorri zen irratia bedeinkatzera.

esan, Suitzatik bidalitako
oroigarriak baditugula, en-
tzuten gintuztela esanez.
Bere helburua urrutira iris-
tea zen”.

Buruhauste bat baino
gehiago emandako antena
da Aloñakoa Mari Karme-
nek eta Nikolasek gogoratu
dutenez: “tximistak eta tru-
moiak ziren aldiko, hondatu
egiten zen. Elurrarekin ere
berdin, igo ezinda gelditu
eta denbora batean ixilik
egon behar... Mantenimen-
du aldetik oso garestia zen.
Antena jartzeko pista egin

zen eta ekologistek erre
egin zuten, 1981ean. Or-
duan erabaki zen erabat ix-
tea. Oñatiko udala egin zen
haren kargu eta orain men-
diko aterpetxe bat dago, On
Zesareok eraikitako txabo-
latxoan. Obra ikaragarria
izan zen. Pista mantendu
egin behar zen eta metrotik
metrorra arbolak landatu be-
har ziren. Arantzazuko Go-
mistegi baserrian ere tximis-
ta sartzen zen, antenagatik.
On Zesareogatik balitz, Al-
peetan egongo litzateke an-
tena!”.

Disko museotxoa

Irrati batean musikak ga-
rrantzia handia du eta ho-
rren lekuko da Segura
Irratian dagoen disko
museotxoa. “Aspaldikoak
gara eta asko daukagu.
Dena ez, baina asko bai.
Arbelezko diskoak ba-
dauzkagu oraindik, 78ko
eta 33ko errebulozio-
koak. Horiek entzuteko to-
kadiskorik ere ez dago.
Orain internetetik bidal-
tzen digute abestia eta
errazagoa da”, dio Mari
Karmenek.

Erosi bai, baina jende-
ak disko bat baino gehia-
go oparitu izan dizkie:
“Disko asko iritsi egiten
ziren baina makina bat
erositakoak ere badira.
Jendeak oparitutakoak
ere bai. Inrosako neskek
adibidez, disko pilo bat
bidali zizkiguten”.

Itxita

50 urtetan gorabehera bat
baino gehiago bizi izan du
Segura Irratiak. 1956an sor-
tu zenetik, 1964. urtera arte
egon zen irekita. Nikolas
Iparragirrek zehaztu due-
nez, “Fraga Iribarne zegoen
Informazio eta Turismo Mi-
nisterioan. Uhinen inguruko
dekretu bat atera zuen eta
Segura Irratia Onda median
emititzen zen. Orduan era
honetako irratia itxi egin
zuten. 1972an berriz hasi



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

zen emititzen. Erdi klandestino, erdi ilegal, alegal. 1977ko abuztuaren 1ean legalizatu zuten”.

Legalizatu eta gutxira hil zen On Zesareo Elgarresta, 1980ko irailaren 10ean. “Azkeneko urtea gaixo samar egon zen eta orduan hartu genuen guk irratia ardura, 1979an. Handik aurrera, zuzendari bezala bere lehengusu On Jose Elgarresta egon zen. 1998ko apirilaren 2an hil zen”. Mari Karmenentzat On Zesareoren heriotza izan zen momenturik gogorra. “1979ra arte On Zesareok eraman zuen pisua. Guk ez genuen ezagutu ere egin”.

Nikolasek beste momentu zail bat ere gogoratu du: “Beste tarte bat ere gogorra izan zen, 1972tik 1977rako. Irratiak legalizatzeko, Sociedad Anonimoa egitea behartzen zuten. Eta SA horretan, On Zesareo jarri zuten buru eta aldamean, momentu hartan agintzen zutenei interesatzen zitzairen jendea jarri zioten. Gorabeherak izan ziren, ondoko horiekin. Baina azkenean On Zesareok, hil aurretik lortu zuen akzio guztiak bereak izatea. Gero akzioak banatu egin zituen. Gaur egun, akziorik gehienak, Arantzazuko fraileek dauzkate. Momenturik konplikatuena haiek izan ziren”.

On Zesareotaz hitz egi-



Segura Irratian haziak

tAhots eta pertsona asko pasatu dira Segura Irratitik. “Kolaboratzaile askorekin lan egin da eta hauek ere ia dohainik lan egin dute. Plantilla txikiarekin aurrera ateratu da. Denok denetik egin behar izan dugu”. Gaur egun, hiru langilek eta 14-15 bat kolaboratzailek aineratzen dute eguneroko Segura Irratia.

Beteranoenak direnak, Mari Karmen Elortza segurarra eta Nikolas Iparragirre idiazabaldarra dira.

Mari Karmen Elortza

1977an sartu zen Segura Irratiko lan taldean. Aurretik ere ibilitakoa zen. “Guk bizi guztia hemen sartuta egin dugu. Laubost urte nituela errosarioa erreztatzen aritzen nintzen. Lehen umeek erreztatzen zuten errosarioa zuzenean. On Zesareoren

azkazala lapitzarekin pintatu eta errosarioa erreztatzen aritzen ginen. Oraindik ere ez dira hainbeste urte errosarioa ez dela zuzenean egiten. Ni entzunda nago, hasieran, bi errosario erreztatzen zirela, bat eguerdian eta bestea arratsaldean”, esan du segurarrak.

Nikolas Iparragirre

Idiazabaldarra 1973an sartu zen. “Beti gustatu izan zait komunikazio mundua, nahiz eta gero ez nuen profesionalki bide horretatik jarraitu. Eskutitz bat idatzi nuen irratiari. Nire osaba zegoen kronista eta banekien Segura irrati bazela. Guk orain ere bai esaten dugun bezala, pentsatzen dut orduan ere baiezkoa esango zidatela. Kirol berriak ematen hasi nintzen, astean behin”, dio idiazabaldarrak.

Pottoka
KAFETEGIA

● Ogitartekoak

Osinalde s.l.
DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

tearakoan, zera nabarmendu nahi izan dute Mari Karmenek eta Nikolasek: "On Zesareo oso ausarta zen eta buruan jartzen zitzaiona lortu egiten zuen. Garbi zeukan bere irratia zer zen". Bitxikeria pare bat ere gogoratu dituzte: "Esaten dute, Realaren emaitzak esaterakoan, Realak 2 eta besteak 0 eta horrelakoak esaten zituela. Teknikoekin irratitik zuzenean komunikatzen zen konponketaren bat egiterakoan".

Momentu gogorak bai, baina politak ere bai. Egutero bizi dituzte momentu goxo eta polit horiek: "Politena, aurrera ateratzeko gai bagarela ikustea da. Zailtasun asko daude. Beti bezeroei esker bizi izan gara. Publizitatea, errosarioak, eskelak... horiek izan dira gure diru iturriak. Orain arte iraun dugu nola edo hala. Eskola txiki bat ere izan da Segura Irratia. Jende asko pasatu da hemendik. Edonorentzat irekita egon da irratia eta eskola txiki bat da. Hori polita da, hemen ibilitako jendea, puntan ikustea", aitortu dute.

Segura Irratitik Euskal Herrian ezagun egin den pertsona bat aipatu dute adibide bezala, Mari Karmen Elortzak eta Nikolas Iparragirrek: Peio Zabala. "Arantzazuko frailea zen Aita Mendizabalek, meza ondoren, Arantzazuko be-



Luzia Imaz da basierako esatarietatik bizirik dagoen bakarra. Argazkian ikusten den bezala, mikrofonoan beti errosarioa egoten zen zintzilik.

rixxkak ematen zituen eta tartean eguraldia. 1978ko martxoaren 30ean hil zen istripuz eta bere lekua Peio Zabalak hartu zuen. Gero Euskadi Irratian hasi zen eta eskusibitatea eskatu zienean, Joxe Landa hasi zen".

Basarrik eta Atxukarrok adibidez, saio bana ere egin izan zuten Segura Irratian.

Herritarren zerbitzura dagoen irratia

Ezaugarri hori nabarmendu nahi izan du Mari Karme-

nek, Segura Irratiaren ezaugarriez galdetzean. "Edozeinen esku dagoen instrumentua da". Horrekin batera, Nikolasek ondokoa gehitu du: "entzuleen oso gertuko irratia izatea. Jendeak badauka konfiantza, behar duena eskatzeko".

Urtebeteko ospakizuna

Apirilaren 2an izan zuten 50. urteurreneko eguna, baina ez zuten ospakizun berezirik egin. "Gu ez gara ospakizun handietarako sortuak. Urtean zehar, gogoraziko dugu 50 urte bete ditugula eta aurrera jarraituko dugu. Garai bateko grabazioak jartzen joan-

go gara urtean zehar. Television Española ere horrela egiten ari da. Television Española baino zaharragoak gara. Gu apirilean sortu ginen eta telebista, urrian", diote irriparez.

Segura Irratian grabatzekoak eta gordetzekoak ez direla aitortu digute, bai-

na ondo gordeta badituzte bai altxor txikiak. "Bertso saio bat badaukagu, 1961ekoa. Segurako mojei dirua emateko edo antolatu omen zen bertso saioa. On Zesareoren errosarioren bat ere badago. Bere hileta ere eman omen zen eta hori ere gordeta dago".

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- agenteia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN




ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626

DISEINUA SUKALDEAN

fakt. re



faktone


ARGI
O P T I K A

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

BVLGARI *Salvatore Ferragamo* EXTĒ ROMEO GIGLI

E W M E



Aralarren baso guneak berreskuratzen



100 hektareako 2 basok Enirio-Aralarren paisaia aldatuko dute; pagoak eta lizarrak landatu dituzte

Enirio-Aralar mankomunitateak 2002. urtean onartutako ekintza planaren barruan kokatu behar da, Aralarren, bost urtean, 100 hektareako basotxoak sortzea. 16.000 pago eta

2.000 lizar landare aldatu ditu Ataungo koadrila batek. Jose Antonio Irastortza Enirio-Aralar mankomunitateko basozainak eman dizkigu landaketari eta helburuei buruzko xehetasunak.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Gipuzkoako paisaia, basoen portzentajea, %61ekoa da. Enirio-Aralarren aldiz, portzentaje hori, %20koa da. “Horrek ez du esanahi %60raino iritsi behar dugula basogintzan baina orekatxo bat bilatzen saiatu behar gara”, argitu du Jose Antonio Irastortza, Enirio-Aralar mankomunitateko basozainak.

100 hektarea hartuko ditu Aralarren sortu dituzten basoek. Bata, Amezketan aldean, Arritzaga errearen eskuin aldeko aldapan edo malkarrean. Bestea, Basaizpurun, Txindokitik hurbil. Eremu txikiagoa da. “Izenak berak dio lehen basoa bazela”, zehaztu du zaldibiarak.

Lekuak aukeratzeko garaian, ondokoa hartu dute kontuan: “gune malkartsuak dira, higadura arrisku handikoak. Kontuan izan behar da bertan ibiltzen den haizienda, behorrak eta behiak. Historian auskalo zenbat behor eta behi amildu diren eta beheko Arritzagako errekan bukatu duten. Hori ekiditeko asmoa dago”.

16.000 pago inguru eta 2.000 lizar inguru landatu dituzte. Beste espezie batzuk landatzen ere joango dira pixkanaka: hagina, astigarra, elorri zuria eta beltza, hosto zuria, hurritzak... “Gorostiak eta badaude, baina horko animaliak nahikoa urruti mugitu beharra daukate. Denborarekin,



“Gune malkartsuetan, higadura arrisku handikoetan, ari dira landaketak egiten. Kontuan izan behar da, bertan, auskalo zenbat behor eta behi amildu diren eta beheko Arritzagako errekan bukatu duten”.

zuhaitzen frutuak ere jango lituzteke animaliek”, adierazi du basozainak.

Baso berri hauek eduki-ko duten beste ondorio positibo bat ere aipatu du Irastortzak: “ondorio positibotarikoa bat izango da denborarekin, faunarentzat, babesa izango direla, batez ere gordeleku gisa. Goitik dabil-tzan harrapariengandik babesteko lekuak izango dira”.

Gauza guztiek izaten dituzte bi aurpegi eta honetan ere, baso landaketek, eragingo dute oztoporik. “Kalte naturalik ez du izango.

Nahiz eta behiak eta behorrak amiltzeko arriskua ekidin egingo den, momentuz, ardientzako jana murriztu egingo dela onartu beharra dago”, aitortu du zaldibiarak.

Ataungo koadrila

Diego eta Antonio Aierbe, eta Jexux Mari Imaz ataundarrek osatutako koadrila

aritu da martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran landaketetan. “Berez lehenxeago egiteko asmoa zen baina goietan denbora askoan izotza egon da eta malkarretan lan egiteko arriskutsua zenez, elurra ere bai tartean, atzeratu egin da”, zehaztu du basozainak. Landareak babesteko itxiturak ere egingo dituzte.

16.000 pago eta 2.000
lizar landare aldatu dituzte.





ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



aulia

TOLARE
SAĞARDOTEĞIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA



Helburu zaila

1.200 metroko altueran basoak sortzea ez da lan erraza. "Kontuan hartu behar da, elurra dela, haizea dela, ez da erraz-erraza izango gauzak aurrera eramatea baina behar den ahalegin guztia egiteko prest gaude. Hor sortzen den arbola, beste edozein lekutakoa baino esanguratsuagoa izango da. Urtetan eta urtetan, lehen hala izanagatik, ezer gabe egondako lekuak dira eta nolabait inpresioa egiten duen lekua da".

Aralarren egiten ari diren basoaren berreskurapen hau, esperientzia pilotua da Irastortza basozainaren erabera. "Altuera horretan, orain arte ez da inoiz burutik pasatu izan horrelako ekintza plan bat aurrera eramatea. Eta oso garrantzitsua da. Gipuzkoako Foru Aldundia egiten da kargu hor-

ko gastuei aurre egiteko".

Dirulaguntza izateaz gain, Enirio-Aralarko ganaduzale eta artzainen oniritzia izatea ere garrantzitsua izan da zaldibiarren esanetan. "Orain 15 urte horrelako ekintza bat egitea pentsaezina izango litzateke bertako zuzeneko bizitza egiten duten abeltzain eta artzainengandik, baina azpimarratu eta aipatu beharko da, sektorean gai hauekiko sentsibilizazioa handitu egin dela".

10 bat urtetan, baso polita sortuko da Irastortzak aurrerratu duenez. "Inpresioa egingo duten eremuak izango dira, altura horietan pagorik ez baitugu ikusi. Aurreko batean, lantxo batzuk eginda behera nentorela, hiru lagunek gelditu ninduten zertan ari ziren galdezka. Pozik agertu ziren", gaineratu du.

Mankomunitatearen ekintza plan gehiago

100 hektarea baso sortzea Enirio-Aralar mankomunitatearen ekintza planaren barruan kokatu behar da. 2002. urtean egin zen plana eta bost urterako plana da. Jose Antonio Irastortza basozainak beste bi ekintza plan ere aurrerratu dizkigu.

Larre eremuaren murriztea

100 hektarea gutxiago izango dira Enirio-Aralarreko larre lurretan, basoaren ondorioz. Horrekin lotuta dator bigarren ekintza plana ere, haziendaren kopurua mugatzea aurreikusten baita. "Ganadu handiaren kopurua mugatzea aurreikusten da; hau da, 1.200-1.400 buru baino gehiago ez ibiltzea. Artzain txabolak ere, 42tik 35era pasatuko dira. Adibidez, leku aldapsu horietan, hain urruti egonda, inguru horretan dauden hiru txabolak, orain artzainak dauden artean jarraituko dute baina horiek bukatzen direnean, ez da gehiago joango. Orduan, eremu horretan ganadu murrizketa badator, nahiko jateko moduan izan daitezten. Beraz, larre eremuan murrizketa egin den lekuan, aldi berean ganadua ere murriztea aurreikusten da".

Bi urtean datu ganaduaren bilketa zehatza egin du Enirio-Aralar mankomunitateak, mendiak duen jasangarritasuna neurtzeko. Aurten, 800 bat behi, 600 behor eta 18.000 ardi igoko dira.

Flora eta faunaren ikerketa

Zenbat mozorro, eta beraien portaerak, eta zenbat landare mota dauden aztertzeko ikerketa sakona egin dute Enirio-Aralarren. "Aralarren zer dagoen ondo ikertuta daukagu. Aralarren kontserbaziorako animalia eta mozorro guztien beharra dago. Egutera aldetik edo beste aldetik izan, oso belar ezberdinak ateratzen dira. Biologoak oso datu interesgarriak jasotzen ari dira, Europatik datozen programetarako ahalik eta prestatuen egoteko. Lorategi hori horrela edukitzea interes handikoa bada, laguntza ekonomikoak iritsiko dira. Interes Komunitarioko Lekua izendatuta dauka Europak Enirio-Aralar", zehaztu du zaldibiarrek.

Parke Naturalak garrantzia handia hartzen ari dira European Irastortzak aurrerratu digunez. "Programa bereziak ari dira prestatzen, bertako landaredia eta txorientzako habitata, zein aberastasuneko larreak dauden belarrak dauden... iraultza bat badator Europatik eta prestatuta egon behar gara laguntzak etorriko dira eta".

Horrelako altueran basoa
berreskuratzea, esperientzia pilotua da.

San Inazio, 14 BEASAIN ☎ 943 889 390	<i>Lirain</i>
Garagartza pl., 1 ORDIZIA ☎ 943 805 327	
San Franzisko, 8 TOLOSA ☎ 943 650 239	
<i>Lurrindegia eta opari gaiak</i>	

Arraiak parrilan		
☎ 943 65 21 76	ZALBIDE	
ABALTZISKETA	TOLARE SAGARDOTEGIA	

Maiatzak 1, Larraitzen

Aralarko larreen irekitze festa

Enirio-Aralar mankomunitateak urteroko festarako eguna jarrita dauka aurten ere: maiatzak 1. Enirio-Aralarko larreei neguan atsedena eman ondoren, behorak, behiak eta ardiak, mendiko larreetara igotzeko baimena emango diote, eguerdiko 12etan botako den suziriak. Aurten, 800 bat behi, 600 behor eta 18.000 ardi igoko dira.

Dena den, aurretik eta ondoren ere, izango da zer ikusi, zer dastatu eta zer erosia.

Egitaraua:

10:00etan: Trikitilariak.

11:00etan: Arkupe dantza taldearen emanaldia.

11.30ean: Mikel Almanoz nafarraren, zaldi doma erakustaldia.

12:00etan: Larreak irekitzeko etxafuegoa botako da.

Ondoren: Jaialdia: Arano Ansa ahizpak abeslariak, Alaitz Sarasola eta Bi-

xente Gorostidi bertsolariak; Guillermo Segurola txiste kontalaria; Jesus Mari Lasa eta Iñaki Aierbe aizkolariak. Aizkora saioaren barruan, aizkolariaren eta

zaldiaren aurkako desafioa jokatu da: zaldia zeharka lasterketa eta aizkolaria enborra ebakitzen.

17:00etan: Telleria eta Mujikaren triki jazz banda.

Ekintza guzti horiekin batera, bertako produktuen salmenta, gazta salmenta, artisauak, taloak... ere izango dira Larraitzen, maiatzaren 1ean.



Larreei atsedena eman ondoren, abereek Aralarren bazkatzeko aukera izango dute, azaro aldera arte.

**ARANDIA**
Garajea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

LEIAR


KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

**AUSO EGI**


ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Txindoki-Alkartasuna

Institutua

B a t x i l e r g o g u z t i e n k




ARTE BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injinerutza teknikoak
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide H

Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpena
Altzari diseinua
Arropa diseinua...



TEKNOLOGI BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Injinerutzak
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Fabrikazio mekanikoa
Produktzio zerbitzua eta Mantenimendua
Elektrizitate eta elektronika
Egurra eta altzariak
Automozioa...

matrik

Ugartemendi, 6. 20200 Beasain



T e l f . 9 4 3 - 8 8 0 7 5 3

Berria:
Batxilergo Eleaniztuna.
Ikasgai Batzuk Ingelesez
Modalitate Guzietan.



a l i t a t e z k o e s k a i n t z a

ATUR ETA OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Medikuntza
Erizaintza
Albaitaritza
Fisioterapeuta
Kimika
Matematika
Injinerutzak
Arkitektura...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Ingurumen kimika
Informatika
Osasungintza
Nekazar jarduerak...

eziketa:

pena
editoriala



TATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Ekonomikak
Administrazio eta enpresa
Humanitate-enpresa
Zuzenbidea
Filologia eta Itzulpenzaintza
Geografia, Historia...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Administrarritza
Merkataritza eta Marketing
Ostalaritza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...

mendua

Berria:
Batxilergo
Eleaniztuna



kula epea : apirilaren 24tik maiatzaren 5era

ain www.txindokialkartasuna.net

Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroa:

Gazta bost zentzuekin



Idiazabalen maiatzaren 7an egingo den IX. gazta eguna aitzaki ederra da Gaztaren Interpretazio Zentrua ezagutzeko. Bertan, munduan dauden hainbat gazta mota, Idiazabal gazta bera eta bertako gazta egiteko ezinbesteko diren artzainen eta latxa ardiaren inguruko oinarritzko ezagutza ematen zaio bisitariari. Asteburu eta jaiegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara dago zabalik. Bi bisita mota daude aukeran: ikusteko bakarrik edo gazta dastaketa eginez, gazta bost zentzuekin.

Gaztaren interpretazio zentroko sarreran munduan dauden hainbat eta hainbat gazta mota desberdinen berri izan ondoren, xagu baten neurria bagenu bezala, xagu zuloan sartzen gara. Bertan, gazta erraldoietan eserita gaudela, telebista pantailatik Izal xaguak Idiazabal gaztaren historia azaltzen digu.




 **mazda**

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44




Gazta gordetzeko modua

- Gorde ezazu gazta leku freskoan, ez oso hotzean.
- Gazta zatitu ondoren barrualdeak ez luke airearekin kontakturik izan behar. Horregatik, gazta zatiak aluminiozko paperean, elikagaientzako filmean, gazta ontzian edo plastikozko ontzi itxian gorde behar dira.
- Hutsean ontziraturakotako gaztak luzaroago gorde daitezke.
- Lehortu bada edo mozketa egin den tokian lizuna agertu bada, moztu lehen geruza hori eta kontsumitu ezazu gainontzekoa.

Bideoa ikusi ondoren, artzain txabola bat barrutik ezagutzeko aukera eskaintzen zaigu. Bertan dauden ordenagailuetan gazta egiteko beharrezko diren tresna desberdinen inguruko informazioa eskura du bisitariak. Gazta gordetzeko modu egokia ere oso interesgarria da bisitari gehienentzat, gure inguruko gazta desberdinen erruleta bezalaxe.



PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

iñAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 43 01



Interpretazio zentroko errege Idiazabal gazta da eta bisitaldiko erakargarriena berau dastatzea. Gazta mota desberdinen itxura, usaimen eta zapore egokiak zein diren jakinarazten zaigu dastaketa mabaitxoetan. Hori egin ondoren gazta ketua, mingotsa eta garratza usaimenez ezagutzeko gai garen probatu dezakegu borretarako prestatutako 'marmitta' berezietan. Bost zentzuekin egiteko bisitaldia baita Idiazabalgoa.



IÑAKI ARIN

Aseguruak

☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Kol. zkia.: 764

Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

IX. Gazta Eguna Idiazabalen, maiatzaren 7an

Maiatzak 2, asteartea

19:30ean: Pilarreneako ganbaran, **Gastronomia eta turismoa** hitzaldia emango du Aurrene Alzua Turismoko Katedradunak. Gastronomia eta turismoa uztartuz hitzaldia eskainiko du.

Maiatzak 4, osteguna

18:30ean: VII.Mami lehiaketa. Jubilatuen Elkartean.

19:30ean: Mahai ingurua: **Artzaintza: etorkizuneko erronkak.** Pilarreneako ganbaran. Juan Manuel Intxaurrendia (ITG- Abeltzain alorrean lan egiten du eta Nafarroko Unibertsitateko irakaslea), Eva Ugarte (Neikerren latxa eta karrantzana ardien hobekuntza genetikoaz arduratzen da), Jose M^a Ustarroz (Idiazabal izendapeneko lehendakaria), moderatzailea. Eli Arrillaga (artzaina) eta Jabier Jauregi (Aralarko artzaina).

Maiatzak 5, ostirala

19:00etan: Idiazabali buruzko bideo emanaldia Pilarreneako Ganbaran. **Idiazabal 1987-1988:** 'Idiazabal gaur' 1988ko San Blas jaietan aurkezteko bideo emanaldi bat izan zen. Herriar batzuen artean, afizio eta ilusio handiz egindako lan honetan, herriko zenbait irudien artean, Benta txiki, Oriako errota, urteberriko ardo partiketa, lantegi batzuk, artzaintza, eta abar agertzen dira.

Maiatzak 6, larunbata

17:00etan: Jai-Alai Sports36koen eskutik **zesta punta ikastaroa** haurrentzat.

19:00etan: Jai-Alaiekoeen 36koen eskutik profesionalen arteko **zesta punta partida**, pilotalekuan.

22:00etan: 'El Caserio' Zarzuela Zelaako Kiroldegian, Lirica Sasibill konpainiaren eskutik.

Maiatzak 7, igandea, IX. Gazta Eguna

10:00etan: Artzainek **postuak irekiko dituzte.**

11:00etan: Herriko artzainak **gazta egiten hasiko dira** era zahar eta modernoan.

11:30ean: **gazta ketzen eta ardi mozte** ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: **Omenaldia** Prudencio Aranburu artzainari.

13:30ean: **Sari banaketak:** VII.mami txapelketa, postu dotoreenari, gazta onenari.



Arratsaldean: **Urrezko aizkoraren** kanporaketa, Olasagasti eta Peñagarikano.

Ondoren: **Txaranga** ibiliko da herriko kaleetan.

Oharrak:

- Gazta debalde dastatzeko aukera izango da.
- Gazta onena sarituko da, jendearen iritzia kontutan hartuta.
- Artzainen postu dotoreena sarituko da.
- Trikitilariak eta txistulariak giroa alaituko dute.


GUKlan
 BAINUKO OSAGAIK
 BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
 Nafarroa Etorbidea, 27
 BEASAIN

Tailerra:
 Okorro, 6
 ORDIZIA

berriz

AMAYA ARZUAGA
 MIRIAN OCARIZ
 ISABEL MARANT
 PAUL & JOE
 HOSS
 MISS SIXTY


FRENCH CONNECTION
 DIESEL
 FOR ALL MANKIND
 ANTIK BATIK
 EARL JEANS
 SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Christiane Bedel:

Alemaniarren eta euskaldunen arteko zubiak eraikiz



tzultzailea da Christiane Bendel alemaniarra. Euskaldunberria. Frankfurten jaioa eta azken 15 urteak, Alemaniaren eta Euskal Herriaren artean bizi izan ditu. Euskara ikastera etorri eta momentuz behintzat, Euskal Herrian gelditzeko asmoa dauka, alemaniarren eta euskaldunen arteko harremanak sortzen eta, alemaniera eta euskara gerturatzen. Lazkaon bizi da, “berdez inguratuta”. Giro ona aurkitu du bertan.

Noiz etorri zinen lehenengo aldiz?

Orain dela 15 urte etorri nintzen Euskal Herrira. Donostian egon nintzen. Harrezkero askotan etorri izan naiz. Duela hiru urte Gipuzkoa barrualdea, Lazkao,

ezagutu nuen. Oso berezia da Donostiarekin alderatuta.

Eta hemen gelditu zara.

Lazkaon bizi naiz. Alemanian ez da posible euskaraz hitz egitea eta horregatik gelditu naiz hemen.

Zer gustatzen zaizu gehiena?

Natura, jendea, hizkuntza, giroa...

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Duela 15 urte, neure kontura hasi nintzen. Baina libu-

rurik eta gramatikarik ez neukan, alemanieraz. Orduan, gaztelerazko liburuekin hasi nintzen. Gero Maizpide euskaltegira etorri nintzen. Gaur egun, Frankfurtuko unibertsitatean euskara klaseak ematen dituzte. Po-



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika.
Legorreta: Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda.
Segura: Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle.
Zumarraga: Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

sible da Frankfurten ere euskara ikastea.

Frankfurteko unibertsitatean euskara ikasten jende asko al dabil?

Bai, dezente. Hiru maila daude eta lehenengo mailan 20 lagun ari dira. Beste mailetan jende gutxiago dabil. Baina interesa oso handia.

Zergatik dago interes hori?

Hizkuntzaren konparazioak egiten dituzte.

Euskara zaila al da?

Bai! Aditza oso zaila da. Zenbat forma... Ergatiboa, noski, zaila da...Oso hizkuntza berezia da baina merezi du. Adibidez, bertsolariak entzutera joan naiz eta asko gustatzen zait bertsolaritza. Oso arte berezia da. Horregatik bakarrik ez, baina aspektu bat da. Kultura ezagutzeko tresna da hizkuntza.

Zein bertsolari gustatzen zaizu?

Gazteak, Jon Maia eta Sus-trai Colina.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Alemaniera, katalana, gazte-lera, frantsesa, euskara, ingelesa. Hizkuntzak nire bizia dira.

Denetan bereziena euskara al da?

Bai, hala da. Egitura oso berezia dauka. Ez da logikazko hizkuntza bat.

Zer da ikastea gehien kostatu zaizuna?

Aditza. Aditzaren formak,

Proiektuak

Euskal gramatika alemanieraz idatzi duzu.

Alemanian ez dago euskal gramatikarik eta horregatik norbaitek hasi behar du lan horrekin. Hamburgoko argitaletxe bati galdetu eta baietz esan zidan. Orain dela lau urte hasi nintzen egiten eta martxoaren hasieran bukatu nuen. Hizkuntzaren deskripzioa egin dut. Ergatiboa, mugagabea... noiz erabili... Ez da ikasteko liburu bat. Baina liburu bat egiten ari gara, irakaslearentzat. Jende askok dauka interesa baina ez dago materialik.

Dirulaguntzarik izan duzu liburu hau egiteko?

Frankfurteko unibertsitatetik eta Eusko Jaurlaritzatik jaso dut dirulaguntza.

Beste bi proiektu ere gauzatzen ari zara. Bat, Euskal lema da. Zer da?

Kultur proiektua da. Kultur harremanak zabaltzeko proiektua da. Hizkuntzaren harremanak zabaltzea ere nahi dugu. Alemanian euskara zabaltu eta Euskal Herrian alemaniera. Adibidez, ez dago Euskara-alemaniera gramatikarik. Horregatik jendeak beti gaztelerazko materialak hartzen dituzte. Bide zaila da baina aurkitu egin nahi genuke. Liburuak itzultzen ari gara.

Eta hirugarrena?

Gramatikaren aspektuak landuko dituen produktuak, materiala sortzea. Jendeak arazo asko ditu euskararekin eta jolasaren bidez ikastea errazagoa da. Jolasaren bidez, euskara ikasteko modu erakargarriagoa sortu nahi dute.

Zu euskara ikasten ari zinenean, material falta hori sumatu al zenuen?

Bai.



paradigmak...

Arraroa egiten zaizu bertan bizi den jendeak euskararik ez jakitea?

Bai, bai. Asko gustatuko litzaidake hemen bizi den jendea motibatzea, hau da, atzerriko edo Espainiako jendeak euskaraz ikasi dezala.

Kanpotar ugari dator azkenaldian Euskal Herri- ra. Nola animatuko zenituzke euskara ikastera?

Ez dakit hemen bizi den jende askok zergatik ez dakien euskaraz, ez dakit zergatik ez diren euskaraz ikasten saiatzen. Hemen in-tergratzeko eta hizkuntza

oso interesgarria delako, merezi du euskara ikastea. Euskal kultur bizitzan parte hartu nahi nuke eta niretzat oso garrantzitsua da euskara. Badakit zaila dela jendea animatzea, baina agian Jaurlaritzaren laguntzaz kanpaina egitea posible dela ikusten dut.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Ordizian, Lazkaon eta Beasainen sortu dira



Gazteen bilguneak

Gaztekuak, Gazte lokalak, Gazteguneak... izen ezberdina eduki arren, funtzio berdineko guneak dira. 12 eta 16-18 urte bitarteko gazteentzako bilguneak antolatu dituzte Ordiziako, Lazkaoko eta Beasaingo udalek. Ordiziakoa izan zen sortzen lehena; Beasaingoa

azkena. Aisiraldirako Zerbitzuak enpresak kudeatzen ditu gazteen bilgun hauek. Urtean zehar, larunbat eta igandetan, arratsalde, irekitzen dira, baina gazteen opor egunetan, egutegi berezia eta zabalagoa izaten dute. Aste Santuko oporretako ekintzetan harrapatu ditugu gazteak.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturrioz, z/g



www.txekin.net





Beasaingo gazteguneko arduradunak: Nerea De la Cruz eta Jesica Cantero bezitzaileak eta Idurre Aierdi Koordinatzailea.

Idurre Aierdi da Goierriko Gaztelekuak kudeatzen dituen Aisialdirako Zerbitzuak enpresako koordinatzailea. Izen ezberdina eman izan zaie gazteen bilgune hauei, guk bat aukeratu behar eta Gaztelekua deituko diegu.

Zer da Gaztelekua?

Gaztelekua herri batetik bestera desberdina izan daiteke. Kontzeptua nahiko berria da eta herri bakoitzean erabilera ezberdina ematen zaie. Herri batzutan adibidez, Gaztelekua 12 eta 18 urte bitarteko bilguneari deitzen zaio; beste batzutan

12 eta 16 urte bitartera arteko. Beasaingo kasuan 12-18 urte bitarteko gazteenzako gunea da; Lazkaon eta Ordizian, 12 eta 16 urte bitartekoena.

Udalak berak definitzen du azken batean Gaztelekua, noiz erabili, zein adin tarte... Herri batzutan egunero dago irekita Gaztelekua eta beste batzuetan asteburuetan bakarrik... Hori bai, gero aldaketak egin daitezke. Gaztelekuak gazteentzat dira eta beraiek dira protagonista. Beraz, gazteen beharretara egokitzen

joan behar du Gaztelekuak. Ordizian, Lazkaon eta Beasainen asteburuetan bakarrik irekitzen dira Gaztelekuak, arratsalde, 4,30etatik 8,30etara.

Udaleko zein sailek antolatzen du Gaztelekua?

Herri bakoitzaren arabera ezberdina da. Beasaingo kasuan, Euskara sailetik antolatu dute. Euskaratik, Gaztediatik edo Kulturatik sortzen dute.

Zergatik sortu dira Gaztelekuak?

Hutsune bat ikusten zelako. 12 urtetik aurrera ez zegoen

Gaztelekuen
helburua
gazteentzako
erreferentzia gunea
izatea da.

aisialdirako eskaintza gidatu bat. Txikientzako aisialdi taldeak, haur txokoak, ludotekak... badaude. 12 eta 16-18 urte artekoak, inon ez ziren sartzen, ez haurretan eta ez helduetan. Poliki-poliki herri ezberdinetan sortzen ari dira.

Gero eta gehiago sortzen ari direla diozu. Horrek zer esan nahi du esperimentiarekin pozik daudela herrietan?

Beharrezkoa dela. Egia baita hutsune hori hor dagoela. **Gaztelekua nola antolatzen da?**

Gazteleku bakoitzaren leku fisikoaren eta nahi denaren arabera izaten da hori. Baina orokorrean, gunea hauek egoten dira: mugimenduzko gunea, ping-pong, futbolararekin...; lasaiago egoteko, gazteak elkartzeko edo mahai jolasetan aritzeko gunea, mahaiak eta aulkiak; tailer gunea ere egoten da;

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 **ATAUN**

m

Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Aste Santuko oporretan, ekintza bereziak egin dituzte Gaztelekuetan. Ordizia, Beasain eta Lazkaoko Gaztelekuetako gazteek elkarrekin hainbat ekintza burutu dituzte. Apirilaren 10ean esate baterako, kirolak izan zituzten, Lazkaon.

telebista, bideo eta musika txokoa; eta ordenagailu guinea.

Dohainik izaten al dira?

Bai, dohainik dira. Eta euskaraz. Gaztelekuaren funtzionamendua euskaraz da. Hezitzaileak, kartelak, ekintzak... gero beste kontu bat da beraien artean nola hitz egiten duten.

12 eta 18 urte arteko tartea izanda, zer moduz moldatzen dira adin ezberdinetako gazteak?

Adin bakoitzak erabilera ezberdina ematen diote Gaztelekuari. 12-14 urte bitarteko gaztetxoek adibidez, ekintza gidatuak gehiago eskatzen dituzte. 15 urtetik gorakoek, aldiz, libre egoitea eskatzen dute gehiago. Beasainen sortu berria da baina Gaztelekuaren helburua bada gazteentzako erreferentzia gunea izatea.

Urtean zehar asteburuetan irekitzen dira Gaztelekuak, baina Aste Santu-

ko opor egun hauetan, adibidez, egutegi berezia antolatu duzue.

Gazteek oporrak dituzten garaian, egutegi berezia prestatzen da, egunero irekitzen baita. Aste Santuko opor egunotan horrelaxe ari dira. Irteera bereziagoak egiten saiatzen gara. Apirilaren 19an adibidez, Zaragozara joan ginen, bertako atrakzio parkera.

Gaztelekuaren arteko harremana baduzue.

Batez ere Ordizia, Lazkao eta Beasaingo Gaztelekuaren artean. Horretaz gain, hilerro, Gipuzkoako beste Gaztelekuetako hezitzaileekin elkartzen gara. Batez ere, ekintzak eta ideiak elkarbanatzeko, eta arazoak edo zalantzak transmititzeko. Era honetan, gastuak ere merkatzen dira garraioan eta txarteletan.

Gaztelekuak beste enpresa batek kudeatzen ditu.

Bai. Udalak enpresa bat kontratatzen du eta enpresa horrek gestionatzen du Gaztelekua. Goierriko kasuan, Aisialdirako Zerbitzuak da enpresa.

Zenbat hezitzaile egoten dira Gazteleku bakoitzean? Eta zenbat gazte?

Gazteleku bakoitzean bi hezitzaile egoten dira. Batz bestea, 30-40 bat gazte biltzen dira. Batzuk arratsalde osoa pasatzen dute Gaztelekuan, eta beste batzuk sartu-irtenean ibiltzen dira.

Gazteen parte hartzea eskatzen al duzue?

Guretzat gazteak dira protagonista eta oso garrantzitsua da gazteek sentitzea beraientzako egindako zerbaite dela. Hilabeteko programazioa egiten dugunean, beraien proposamenak jaso nahi izaten ditugu. Politia izango litzateke, denborarekin, beraiekin batera ekintzak antolatzea, baina hori, denborarekin izango da, harreman bat finkatuta dagoenean.



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI


OSINALDE

KARROZERIA



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. 2ka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Joseba Etxebarria,
Industri Diseinu arloko koordinatzailea.

*"Ikaslearengandik gertu-gertu nago beti,
bere beharrak ulertu eta erantzuteko"*



Lazkaoko jubilatuen bidaia Aralarko San Migelera, 1969ko uztailaren 5ean

Egun alai eta argitsu batean irten zen talde jator hau Lazkaotik. 49 lagun ziren, jubilatua denak. Goizetik sabelak betetzeko prestatuta bakoitzak bere ogitarte-koak zituztela, bidean ez-arrira bustiaz Aralarko San Migel zuten helburua. Baita

zuzen eraman ere Juan Goikoetxea gidariak. Zein baino zein apainago giza seme dotoreak beraien ondorengoak hemen gaude nolaz jakinez beraiei esker euskaldun jatorrak. Bada ez bada ere osaturik joan ziren, sendagilea eta abadea beraie-

kin zituztelarik, edozein mareo txiki emanda ere.

Bazkaria Lekunberriko Aiestaran hotelean egin zuten. Bazkalondoan euskal abestiak abestu zituzten Antton Insausti zuzendari zutela eta Markoxen bertso bakarren bat ere tartean izan-

go zen. Hura umorea, hura sanidadea, etxetik ateratzeko ez gutxiago. Beraien jai handi honek ba zuen zer kontatua. Baina bidean galdurik gaude orduko kontu asko eta asko.

Andres Barandiaran



Bakoitzaren izen-abizenak jarri beharrean, herrian ezagutzen ditugun bezala idatzi ditut San Migelera joan ziren lazkaotarren zerrenda. 1. Migel naparra, 2. Joxixio Axundeikoa, 3. Laxaro Elizegi, 4. Altuna zarra, 5. Etxezuriko Joakin, 6. Joxe Imaz, 7. Juan Begiristain, 8. Mendizabalgo Pedro, 9. Andres Naldaiz, 10. Franzisko Arratibel Kaxetakoa, 11. Juan Mari Galparsoro, 12. Felix Menda, 13. Martin Tolosa, 14. Pedro Urdangarin, 15. Jose Lasa, 16. Bernardo Barandiaran, 17. Joakin txiki, 18. Jaunito Etxeberria Intxaurreondokoa, 19. Migel Etxenike, 20. Migel Aranburu, 21. Antton Insausti, 22. Gabino perratzailea, 23. Ramon Urteaga 'Potxolo', 24. Felipe Aldasoro, 25. Jesus Barandiaran, 26. Juan Goikoetxea (autobusaren gidaria), 27. Jose Joakin Aiestaran, 28. Jose Migel Galparsoro, 29. Felipe Insausti, 30. Juan Alkaiaga, 31. Aralarreko artzain bat, 32. Artano (artzaina hau ere), 33. Axintxio Unanue, 34. Eleuterio Insausti, 35. Jose Inazio Sasianbarrena 'Xaxi zarra', 36. Lukas Apaolaza, 37. Markox Barandiaran, 38. Konstantino Ibarlaburu, 39. Agustin Txapartegi, 40. Francisco Saez, 41. Aurelio Murua, 42. Julian Bereziartu 'Julian txoferra', 43. Martin Rezola, 44. Juan Joxe Aldasoro, 45. Joxe Mari Arratibel, 46. Juan Garmendia, 47. Joxe Luengo, 48. Joxe Baztarrika eta 49. Imanol Aldaregia.

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko menua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Txindoki-Alkartasuna institutuan **Matematika ere ingelesez ikasteko aukera**

Beasaingo **Txindoki-Alkartasuna** institutuan jakintzagai batzuk ingelesez ikasteko aukera zabaldu egingo da:

- **Batxilergo Teknologikoa eta Natur eta Osasun Zientziak:**
 - 1go maila: Matematika I, Etika eta Ingelesa.
 - 2. maila: Matematika II, Historia eta Ingelesa.
- **Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa:**
 - 1go maila: Historia Garaikidea, Ekonomia, Etika eta Ingelesa.
 - 2. maila: Historia, Ekonomia eta Enpresa Antolakuntza, Artearen Historia eta Ingelesa

Berrikuntzak Hezkuntza Sailak ingelesaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko asmoz egin duen deialdiaren berme osoa du. Zabalkundearen elementurik aipagarriena Matematika I eta II ingelesez ematea izango da.

Zer da batxilergo eleanitza?

Derrigorrezko etapetan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, euskaraz eta gaztelaniaz gaitasun egokia lortu ondoren, ingelesari bultzada nabarmena emateko helburua du batxilergo eleanitzak. Horretarako, jakintzagai soil izatetik, beste jakintzagai batzuk erakusteko tresna bilakatuko da; hau da, batxilergoaren 1go eta 2. mailan zenbait jakintzagai ingelesez ematen dira.

Nork egin dezake batxilergo berri hau?

Interesatuta egoteaz gain, euskararen eta ingelesaren azterketa gainditu behar du ikasleak. Euskararen kasuan, badakigu gutxienez maila hori badutela, baina inge-

lesaren kasuan bermatu egin behar da; bestela, ezinezkoa gertatuko bailitzateke irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behar adinako eraginkortasunez gauzatzea. Azpimarratzekoa da ingelesez ematen diren jakintzagaiekin ere programazio ofiziala emango dela.

Zein da helburu nagusia?

Gure asmo nagusia Goierriko ikasleei eta euren familiei aukera berri bat eskaintzea da, euren ikasketen laurdena-herena ingelesez egiteko aukera emango diena. Modu honetara, unibertsitateko edota lanbide heziketako goi-mailako ikasketak egiten hasi aurretik 3. hizkuntza menperatzeko aukera eman nahi zaie. Nabarmenezkoa da aukera



Aurkezpena:

Maiatzaren 3an 18:30ean

943 88 07 53

bikaina dela gure neska-mutilentzat, ahalegin handiegirik gabe, prozesu arrunt baten baitan, etorkizunean izango dituzten beharrei modu egokiagoan erantzutea ahalbidetuko diena, guztioz ezaguna baitugu nolako garrantzia duen gaur egun hizkuntzak ezagutzeak gizarte eta ekonomia alorreko maila gehientsuenetan.

Selektibitateari begira nola dago antolatua?

Batxilergo Eleanitza egin duten ikasleek aukera izango dute azterketa ingelesez, euskaraz edota gaztelaniaz egiteko.

Eta irakasleei buruz zer esan daiteke?

Egitasmoan parte hartzen duen irakasle bakoitzak, bere espezialitatean lizentziatua izateaz gain, ingeleseko titulua ere kreditatu behar du. Ingeleseko gaitasuna lortzeaz

gain, ahalegin berezia egin behar izan dute irakasleek material egokia prestatzen. Dena den, ikasleek agertzen duten motibazio handiak konpentsatu egiten du egingdako lan handia.

Orain arte izandako esperientziaz baliatuz, hiru urteko ibilbidea baitaramazue, zer azpimarratuko zenukete?

Izan ditugun emaitza bikainak guztiz aipagarriak dira. Hala adierazten dute, ikastetxeak berak egindakoez gain, ISEIk egindako ebaluazioek: ingelesaren ezagutza eta erabilpena nabarmen hobetu da. Bestalde, ikasle-en motibazio handia, gurasoen espektatiba altuak, ikasketetarako eta harremanetarako aurkitzen den eskola-klima egokia, atzerriko ikasleekin elkartrukeak... aipatu behar dira.

ETXEBIZITZAK

salgai

Seguran, erdigunean, 2 duplex salgai. 656749460 - 943801628.

Legazpin, pisua salgai. Toki lasaia, bista ederrak, jantzi berri berria, 90 m². 635755118.

Tolosan, etxebizitza salgai. 4. pisua. Dena kanpoaldera. Berritua. 3 logela, sukaldea jantzita, bainu gela berria, egongela eta trastalekua. Altzari guztiak estreinatzen. 37.500.000 pezeta. 610289177.

elkarbanatzeko

Lazkaon, pisua elkarbanatzen da. 678228031.

errentan eman

Beasain erdigunean, etxe nahiko berria alokatzen da. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta balkoia. Dena hornitua. Igogailuarekin. 619456317.

Nafarroan, Urederraren sorburuaren eta Urbasaren ondoan, landetxea alokatzen da. Asteburuetan, zubietan, oporretan. Handia. 948539381 - 616537765.

GARAJEAK

salgai

Ormaiztegin, garajea salgai. 21 m². 676987135 - 943887244.

errentan eman

Beasainen, Igartza auzoan, 35 m²ko garaje bikoitz itxia alokatzen da. 600329197.

LOKALAK

salgai

Lazkaoko erdigunean, 32m²-ko bajua salgai, berria. 943883410.

BASERRIAK

erosi

Goierri edo Tolosa aldean baserria erosiko nuke. 616698236.

LURSAILA

erosi

Goierri lursaila erosiko nuke, heritik gertu. 616698236.

ANIMALIAK

salgai

York Shire arrazako txakurkumea salgai, 2 hilabetekoa, txertoarekin eta parasito gabetua. Ohetxoa eta arnesa opari. 651322203.

Border Collie arrazako txakurkumeak salgai. Prezio interesgarria. 619082553. 20:00etatik aurrera deitu.

opari

Setter ingles arrazako 2 txakur opari. 667593955.

Katu mantsoak oparitzen dira. 678924478.

Bi ardi txakur opari. 6 hila-bete eta 3 hilabetekoak. 943885102.

IBILGAILUAK

salgai

Peugeot 307 xs 1.6. salgai. 110 zaldi, gris metaliztua. 2004. urtekoa. 35.000 km. 11.000 euro. 660024835.

Opel Vectra sport turbo diesela, dti, salgai. 100 zaldi, 5 atekoa. 2000. urtekoa. 120.000 km. 7.200 euro. Negoziagarriak. icamacho@indar.net

Fiat Ducato autokarabana salgai. Prezio atsegina. 686246292.

Ford Fiesta 1.1. autoa salgai, ez erabiltzeagatik. Merkea eta egoera onean. 943884535 - 636620182.

Opel Vectra familiarra salgai. Egoera onean. 665722354.

Volkswagen Golf salgai. 2001. urtekoa. 60.000 km. Oso egoera onean. Prezio interesgarria. 606061165.

Renault Scenic Fair Way 1.4 autoa salgai. 2002koa. Oso egoera onean. Familientzat egokia. 653706217.

Ford Fiesta autoa salgai, ez erabiltzeagatik. Egoera onean. 943884535 - 636620182.



biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12




izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño baserria
IDIAZABAL



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



beasain

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak

☎ **943 88 00 02**
OLABERRIA

BESTELAKOAK

salgai

Txirrindu estatikoa salgai, estreinatu gabe, 50 euro. 615726481.

Belarrari buelta emateko makina salgai, traktore txi-kientzat. Oso gutxi erabilia. 627824757.

Logela salgai: 1,35eko ohea, somierra, 1,90ko armarioa, 2 mesanotxe, 4 kaxoi eta ispildun tokadorea, eta aulkia. Oso egoera onean. Prezioa, 60.000 pezetan. 20:00etatik 22:00etara deitu. 2 kortina eta lanpara bat opari. 696970101.

Baxua salgai, Brich warlock, NJ seriekoa. Beltza. 2 pastilla aktibo. 675008892. Bittor.

Autoko bozgorailuak, 250 w-koa, eta Panasonic irrati kaset, karatularekin eta mandoarekin, salgai. Oso gutxi erabilia. 100 euro. 687374559.

Sutarako egurra salgai. 2 metrotan moztuta. 943880905. 20:00etatik aurrea deitu.

Umeentzako trona, Quinny silla eta Bebe confort silla salgai. Prezio negoziagarria. 943884028. Arantxa.

Fagor mikrouhin labea salgai. Altzairuzkoa. MW3176X modeloa. Erabili gabea. 200 euro. 943802053.

Play Station 2, pirateatua, salgai. Gutxi erabilia. 85 euro. 943160006. 20:00etatik aurrea deitu (Xabier).

Ura berotzeko berogailua salgai. Egoera onean. 670422051.

LANA

eskaerak

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 629869668.

Zerbitzaria behar da. 665726846.

Beasainen neska bat behar da egun osoz etxeko lanak egin eta 7 urteko haurra zaintzeko. 943881302.

Emakumea behar da, goizetan, haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 692715029.

Enpresaritza gaiak emateko irakaslea behar da. Bidali kurrikuluma Ordiziako 61. posta kutxara.

Seguran, neska edo emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 652771379.

2 zerbitzari behar dira Beasainen. 629160500 - 659764490.

Gozokidendan, asteburuetan, lan egiteko neska edo mutil euskalduna behar da. 658744184.

eskaintzak

Emakumea prest dago, tabernak garbitzen, sagardotegietan, adineko pertsonak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egiteko, arratsalde. 630254643.

Emakume euskalduna prest dago orduka lan egiteko. 943084046.

Neska eskaintzen da, astebukaeratan informatikako klaseak emateko. 679556586. Gaez deitu.

Neska, prest dago adineko pertsonak zaintzeko, arratsalde edo gaez. 638735454.

Neska, zerbitzari lanerako prest dago. 678228031.

Emakumea prest dago adineko pertsonak zaindu edo etxeak, tabernak eta bulegoak garbitzen lan egiteko. 943085474.

Neska euskalduna, lanean eskarmentua duena, prest legoke, astelehentik ostiralera, Ordizian edo Beasainen orduka lan egiteko. Etxeak garbitzen, harreragintzan... 637424355.

Emakumea eskaintzen da, autoarekin, lan ez kalifikatueta-rako. (Garbiketarako egiteko, adineko pertsonak zaintzeko...) 678781985.

Emakumea prest dago orduka lan egin eta gaez adineko pertsonak zaintzeko. 617769791.

Emakumezkoa prest dago jostungintzan, ostalaritzan edo zaharrak zaintzen lan egiteko. 636512753.

Ekuatoriar emakumea prest dago garbiketarako egiteko, goizetan. Esperientziaduna. 630250016.

Neska prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. 647896460.

Neska prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. 679890464. Goizez deitu. Lurdes.

Neska prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. 660635956.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZOH. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

IKASTARO BERRIAK!

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlazazio teknikak
- ✓ Emozioen kontrola

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Gai eta maila guztiak
- ✓ Unibertsitarioak

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop: irudien tratamendua
- ✓ Power Point: multimedia aurkezpenak
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Autocad
- ✓ Word, Excel, Acces

INGELERA

- ✓ Azterketa ofizialak
- ✓ KET, PET, First Certificate

INFORMAZIOA:
Ikaskide irakaskuntza zerbitzuak
Joan Iturralde 5, BEASAIN Tel.: 943 160 120 www.ikaskide.net



Alkartasuna Lizeoko ikasleak 1970-71 ikasturtean

1959an jaioetakoak dira argazkiko Beasaingo Lizeoko ikasleak. Gernikara egindako irteeran Goierriko hainbat herri-tako ikasleak dira baina asko Lazkaoiko ikastolako lehen promozioetakoak dira.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Iñaki Insausti, Pello Arrondo, Pello Igarataundi, Jaxinto Mendizabal, Karlos Xabier Muruamendiaraz, Xabier Soroa, Imanol Lasa eta Mikel Estala.

Erdiko ilaran: Pello Zeberio, Manu Larrañaga, Jesus Mari Bujanda, irakaslea, Idoia Goenaga, Ane Lore Estala, Arantxa Irastorza, Amaia Iguain, Mari Jose Galarraga eta Modesta Sukia.

Aurrean pikotxean: Amaia Kerejeta, Karmele Auzmendi, Arrate Arruabarrena, Mari Jose Garmendia, Maixabel Aldasoro, Maria Jesus Urteaga, Idoia Bengoetxea, Mariasun Oiarbide eta Mari Karmen Mendizabal.



OIANGUREN BHI ORDIZIA

Altamira auzoa z/g
Tlfnoa.: 943 880 862
Faxa: 943 164 121
www.oianguren.net
012282aa@hezkuntza.net



OIANGUREN IKASTETXEA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak

- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: apirilaren 24tik maiatzaren 5era



www.sanbenitoikastola.net

- Heziketa integrala
- Eleanitza
- Euskara eta euskal kulturaren transmisioa
- Proiektu berritzaileak
- 0-18 urte bitarteko hezkuntza
- Kalitatezko hezkuntza
- Irakasle talde finkoa
- Zerbitzu eskaintza zabala

BATXILERGOAK:

- × Zientifiko-teknikoa
- × Osasun zientziak
- × Humanitateak
- × Gizarte zientziak

Jantokia

Garraioa

Euskadi enparantza z/g

20210 LAZKAO

www.sanbenitoikastola.com

e-mail: lazkao@ikastola.net

tel.: 943880800

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola


2006-07 Eskaintza

Zurekin Etorkizuna landuz

BATXILERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknikoa

Unibertsitatera eta goi mailako zikloetara zuzendurik



Aurre inskripzioak: Apirilaren 24tik maiatzaren 5era

Ate irekien eguna: Maiatzak 20, goizeko 9etatik 12:30era

